



GAIA: AUZO-ELKARTEEN LOKALAK. COVID-19AREN PANDEMIAK SORTUTAKO OSASUN-ALERTAREN EGOERAREN AURREAN ERABILTZEKO JARRAIBIDEAK

AUZO-ELKARTEEI LAGATAKO LOKALEN ERABILERA

Lokala erabiltzeko baimena duten auzo-elkarteek beren espazioak erabili ahal izango dituzte, behar duten neurrian, gaur egun ezarritako segurtasun neurriak betez, honako hauek barne:

- Higiene pertsonaleko neurriak (eskuak urarekin eta xaboiarekin edo gel hidroalkoholikoarekin maiz garbitzea).
- Ohiko garbitasuna indartzea, ukipen-eremuetan arreta jarritz.
- 2 metroko distantzia sozialari eustea.
- Norbera babesteko ekipamenduak (maskarak edo pantailak) erabiltzea, ezin bada etengabe ziurtatu bi metroko distantzia soziala.
- Errespetatu Osasun Ministerioaren Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planak ezarritako faseek xedatzen duten edukiera-ratioa.
- Informazio-kartelak jartzea.

Higiene pertsonaleko neurriak

Partikularrek, erabiltzaileek eta elkarteko langile edo boluntarioek higiene-neurriak bete ahal izateko, elkarteak eskuetako xaboa, gel hidroalkoholikoa eta erabili eta botatzeko papera eman beharko ditu.

Ohiko garbitasuna indartzea, ukipen-eremuetan arreta jarritz.

Garbiketa-ekipoek bereziki eragin behar dute kontaktu-guneetan, baina, horrez gain, pertsona bakoitzaren ardura izango da erabiltzen diren ekipo informatikoak, mahaia, aulkiak eta abar garbitzea, partekatuak izan zein ez.

2 metroko distantzia sozialari eustea.

Nahitaezkoa izango da jarduera guztietan 2 metroko distantzia soziala mantentzea.

Partikularrei arreta ematen bazaie, hitzordua eskatu beharko diote zerbitzua ematen duen elkarteari, eta lehentasuna emango zaio telefono edo posta elektronikoko bidezko arretari.

Baldin eta, kausalitateagatik, elkartearen zerbitzuak jasoko dituzten hainbat pertsona bat badatoz, itxaronaldia lokaletik kanpo egingo da, leku irekietan, salbu eta aretoaren tamainak ahalbidetzen badu itxaronaldiak irauten duen bitartean 2 metroko distantzia soziala.

Norbera babesteko ekipamenduak erabiltzea

Boluntarioek edo elkarteko langileek ezin badute ezarritako segurtasun-distantzia mantendu, aurpegia babesteko maskarak edo pantailak erabili beharko dituzte.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Errespetatu edukiera-ratioa

Osasun Ministerioaren Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planak ezarritako faseek xedatzen duten edukiera-ratioa errespetatuko da, bertaratutakoen arteko bi metroko tarte errespetatu beharra kontuan hartuta.

Edozein zalantza izanez gero, edukieren ratioak Osasun Ministerioaren Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren [II. eranskinean](#) kontsulta daitezke.

Informazio-kartelak jartzea

Azkenik, [Osakidetza](#)ren edo Osasun Ministerioaren webguneetan lor ditzakegun informazio-kartelak jartzea gomendatzen da.

Juan Carlos Alonso Quilchano
Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuko burua